





2024ko Berdintasun- memoria



Hitzaurre

Hona hemen Eroski Taldearen Berdintasun Memoria, 2023–2027 aldirako Emakumeen eta Gizonen arteko I. Berdintasun Planean oinarrituz 2024an ezarritako ekintzak garatzen dituen.

Kooperatiban, informazioaren barne-kanala (lehen Salaketa-kanala zena) eta laneko sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa dauzkagu. Era berean, aholkularitza-zerbitzu konfidentziala eskaintzen da, balizko kasuak saihesteko eta edozein gorabehera bideratzeko.



Eke-ren 2023-2027 aldirako berdintasun- plana



Planak lan-arlo hauek ditu:

- Jarraipena egiteko eta betearazteko ekintzak
- Enplegua lortzeko, hautatzeko eta kontratatzeke ekintzak
- Prestakuntzarako eta garapenerako ekintzak
- Sustapenerako ekintzak
- Lanbide-sailkapeneko ekintzak
- Ordainsari-politikako ekintzak
- Erantzukidetasuna sustatzeko ekintzak
- Emakumeen azpiordezkaritza zuzentzeko ekintzak
- Lanean sexu-indarkeria prebenitzeko ekintzak
- Lan-osasunaren arloko ekintzak
- Genero-indarkeriaren aurkako eta biktimei laguntzeko ekintzak
- Hizkuntza eta komunikazio inklusiborako ekintzak

Berdintasun-batzordea



EROSKlren diagnostikoa eta Berdintasun Plana aldian-aldian egiteko eta eguneratzeko ardura duen organoa..

Batzordea 2023an ezarri zen, eta egungo Berdintasun Planaren negoziazioan parte hartu duten alderdi berberak osatzen dute: **9 pertsonak enpresaren aldetik eta 9 pertsonak alderdi sozialaren aldetik**. Eroski Taldearen Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen da.


Batzorde honek ekainean egin zuen bilera.

Taldeko sozietate bakoitzeko berdintasun-arduradunak, arlo sozialaren edo giza baliabideen arloaren mende daudela, arduratzen dira zehaztutako ekintza-planak beren eremuan ezartzeaz.

Berdintasunerako behatokia



EROSKI Koop. Eren Berdintasunerako Behatokia 2005ean sortu zen, helburu hauekin:



A

EROSKiren barruan emakumeen errealitatera hurbiltzea.

B

Sexuan oinarritutako lan-desberdinkeriak ezabatzeko lan egitea.


C

Bere asmo, talentu eta beharretara hobeto egokitzen den lanbide-ingurunea sortzea.

Mendekotasun hierarkikorik gabeko boluntario-talde bat da, Berdintasuneko arduradunak bultzaturikoa.



Eroski taldea zifratan 2024an




- EMAKUMEAK
- GIZONAK

Plantilla	Pertsona-kopurua guztira	%76,38 / %23,62
Lanbide-taldeal	Aginte-postuetako pertsonen kopurua (Zuzendaritza-taldeak, Kudeatzailea, Agintea, Arduraduna)	%74,39 / % 25,61
Kontziliazioa Baimenak	Legezko zaintzagatik lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.	%96,59 / %3,41
	Familiartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.	%95,09 / %4,91
	Lanaldi-murrizketa edo borondatezko eszedentzia duten pertsonen kop.	%81,25 / %18,75
	Lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonak guztira	3.344
Prestakuntza	Prestakuntza-orduak	%72,94 / %27,06
	Prestakuntza jaso duten pertsonen kop.	%73,39 / %26,61
Sustapena	Sustatutako pertsonak	%78,26 / %21,74


2024ko mugarri garrantzitsuak esku-hartze eremu bakoitzeko

2024an, Berdintasun Planaren berrikuspenaren aldizkako jarraipena egiten jarraitu dugu. Aurten, kolektiboaren artean komunikazioko barne-kanalen bidez zabaldutako zutabe eta ekintza hauek nabarmentzen dira.





01

Jarraipena egiteko eta betearazteko ekintzak




Berdintasun Politika berrikustea

Eroski Taldeko
Zuzendaritzak eta
Eroski Koop. E.ko
Kontseilu Errektoreak
berrikusi eta
egokitu egin dute
berdintasun-politika,
aniztasunera eta
inklusiara zabalduz.



Berdintasun Planaren jarraipena egitea



Berdintasun Planaren jarraipena egitea

Bi bilera egin dira
Berdintasunaren
Behatokian, Berdintasun
Planaren jarraipena eta
ebaluazioa egiteko.

Eroski Taldeko
Berdintasun Batzordeak
bilera bat egin du.



Sozietate- lidergoa Eroski Koop. E.n

2023-2027 aldirako Berdintasun Plana kolektiboari ezagutaraztea




Jarraipena egin da, organo sozialetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua lortzen saiatzeko. Gaur egun, emakumeek % 82ko ordezkaritza dute organo horietan.

Eroskik, 2023-2027 aldirako Berdintasun Planarekin, urrats bat gehiago egin nahi du berdintasun erreal eta eraginkorraren bidean. Plan horren helburua erakundean emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea da. Plana intranetean dago, langile guztien eskura. Nexoren bidez sartzen da bertara.




Sentsibilizazio-kanpainak


MARTXOAREN 8KO
KANPAINA




Sentsibilizazio-kanpainak




HARROTASUNAREN EGUNEKO KANPAINA



Sentsibilizazio-kanpainak



BULARREKO MINBIZIAREN AURKAKO EGUNEKO KANPAINA



19 de octubre / Día internacional del cáncer de mama

Frente al **cáncer de mama** información y detección precoz




Escanea este código QR y accede a Enforma introduciendo tu DNI y N° de Trabajadora





Nuestro bienestar es mucho más que estar bien. Porque somos tantas, y estamos tan cerca, que nunca te sentirás sola.

02

Enplegua ekintzak



Enplegua lortzeko, hautatzeko eta kontratatzeko ekintzak



EMAKUMEEN ENPLEGUARI EUSTEA

Langileen % 76 emakumeak dira, eta modu iraunkorrean eusten zaio emakumeen enpleguari.

ENPLEGU- ESKAINTZETAN, HAUTAKETA- PROZESUETAN


Eta abarretan erabilitako
hizkuntza eta irudiak
etengabe berrikustea.

KOMUNIKAZIORAKO BARNE-KANALETAN

dauden hutsuneak
argitaratzea




Sustapenerako ekintzak





**KOMUNIKAZIOKO
BARNE-KANALEN
BIDEZ, EROSKI
TALDEAREN
BARRUAN
SUSTATZEN DIREN
EMAKUMEAK
BISTARATZEA**

Emakumeen kolektiboan
erreferenteak sortzeko.



Sustapenerako ekintzak



PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK


Lanbide-garapenerako eta etorkizunean erantzukizun-postuetara sustatzeko prestakuntza-programak (Summa Programa eta Aginteen Eskola). 2024an 133 pertsonak parte hartu dute prestakuntza-programa horietan, eta horietatik % 48 emakumeak izan dira.

Oro har, prestakuntza profesional eta sozioenpresarialeko ordu guztietatik, orduen % 73 emakumeei zuzendu zaizkie.

Gainera, prestakuntza eman duten monitoreen % 68 emakumeak dira.



Emakumeen azpiordezkaritza zuzentzeko ekintzak




- EMAKUMEAK
- GIZONAK

ERANTZUKIZUN- POSTUETAN DAUDEN EMAKUMEEN EHUNEKOA


Gaur egun, Eroski Taldeko erantzukizun-postuen % 74 emakumeek betetzen dituzte.

Sustapen-datuen jarraipena

2024an, Eroski Taldean egindako sustapenen % 78 emakumeak izan dira




ERATZUKIZUN POSTUETAN DAUDEN EMAKUMEAK




HOBEKUNTZA
2023AREKIN
ALDERATUTA


EMAKUMEEN SUSTAPENA 2024AN



Prestakuntzarako eta garapenerako ekintzak



BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK



Sexu-jazarpenari buruzko prestakuntza espezifikoa eman zaie Jazarpen-batzordeko, Berdintasun-batzordeko, Kontseilu Sozialeko eta agintelerroko kideei.

Berdintasun-batzordeko, agintelerroko eta pertsonen arloko kideei **genero-berdintasunari** buruzko prestakuntza eman zaie.




Berdintasunaren arloko bi online prestakuntza-modulu ezarri dira kolektibo osoarentzat: «Berdintasunari buruzko ikuspegi bat» eta «Mikromatxismoak».



Pornografiak haurtzaroan eta nerabezaroan duen eraginari buruzko webinar bat izan dugu Marina Marroquín-ren eskutik.

Eroski Taldeko soldata-arrakalari buruzko datuen jarraipena



● EMAKUMEAK
● GIZONAK


Batez besteko soldata globaletako soldata-arrakala % 9,33koa da. Hau da, gizonezkoek, batez beste, emakumeek baino % 9,33 gehiago irabazten dute.

Alde horren zergatia da gizonak emakumeak baino erantzukizun handiagoko –eta, beraz, ordainsari handiagoko– lanbide-taldeetan daudela sailkatuta. Hain zuzen ere arrakala hori ezabatzeko helburuarekin, prestakuntza-programetan lanean jarraitzen dugu, hala nola teknikarien garapena (Summa), talentuaren garapena, Aginteen Eskola...

Lanbide-taldeen arabera aztertuz gero, arrakala % 3,83 eta % 11,81 artekoa dela ikus daiteke.

KOOPERATIBAN HAUTA

+%9,33



HOBEKUNTZA
2023AREKIN
ALDERATUTA

TALDEKA PROFESIONALAK

%3,83 / %11,81


EROSKI TALDEAREN HEDABIDEAK (kategoriaka banatuta)

2024ko soldata-arrakala


1	Zuzendaritzako langileak	11,81%
2	Kudeatzaileak	8,66%
3	Agintek	8,46%
4	Profesionalak	3,83%
5	Arduradunak	6,23%
6	Teknikariak	5,03%

03


Erantzukidetasuna sustatzeko ekintzak




Deskonexio digitaleko araudia



**Araudi hori
kontziliazio-neurri
gisa onartu da,
atsedenaldiak,
baimenak eta oporrak
errespetatzeko
asmoarekin, baita
norberaren eta
famiiliaren intimitatea
ere.**



Kontziliazio- neurriek 20204an izandako erabileraren azterketa




● EMAKUMEAK
● GIZONAK

Kontziliazio-neurrien erabileran fokua jartzen jarraitzen dugu, eta ikusten dugu oraindik ere gehienbat emakumeek erabiltzen dituztela halako neurriak.


2024an zehazki 3.344 pertsonak erabili dituzte neurriak. Ikusten da baimen horien % 94 emakumeek eskatu dituztela; kasu gehien-gehienetan, adinekoak eta adingabeak zaintzeko.

Horregatik, behatokiak berretsi egiten du sentsibilizazio-kanpainak egiten jarraitzeko asmoa, Eroskiko kolektiboa erantzukidetasunaz eta haren ondorioez kontzienteago izateko.


Legezko zaintzagatik lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.




Familiartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.




Lanaldi-murrizketa edo borondatezko eszedentzia duten pertsonen kop.




Erantzuki- detasuna- ren inguruko kanpaina



Martxoaren 8an erantzukidetasunaren inguruko kanpaina egin zen Elorrioko egoitzan. Hausnarketa erantzukidetasunari buruzko jardunbide egokien horma batean jaso zen. Jardunaldiaren amaieran, talde-argazki bat atera genuen, eta berretsi egin genuen gure konpromisoa.




Erantzuki- detasunari buruzko Cóm- plices jardun- aldia.



Erantzukidetasunari buruzko Cóm- plices jardunaldia.

Cómplices
jardunaldiaren
X. edizioan,
erantzukidetasun-faltan
jarri genuen fokua,
desberdinkeria askoren
sorburua baita. Guztira
600 pertsona inguruk
parte hartu zuten,
hala presentzialki nola
streaming bidez, Laura
Baenak (Malamadre)
eta familia-hezkuntzan
espezializatutako
Alberto Soler
psikologoak «benetako
kontziliazioaren»
inguruan egindako
aldarrikapen-mezuan.



X ANIVERSARIO

JORNADA CÓMPLICES

PONENTES



LA LUCHA: LAURA BAENA

INICIATIVA... (text truncated)



LA EDUCACIÓN: ALBERTO SOLER

PSICÓLOGO Y FAMILIARISTA

PRESENTA



PILAR KAIZTEADA

PSICÓLOGA, EDUCADORA, INVESTIGADORA Y TERAPEUTA

SER

CORRESPONSABLES



X JORNADA CÓMPLICES

11 DE ABRIL

HORA: 10H - 13H

LUGAR: ARANTZUJAS

ORGANIZA

cómplices

EROSKI

COLABORAN

DOMUSA

LagunAuz

FAGOR

LABORAL

LAGUN ARD


DARROBAGROUP




INFORME AQUÍ

04

Lanean sexu- indarkeria prebenitzeko ekintzak





Sexu- jazarpenaren protokoloa onartu eta jakinaraztea



Protokolo horren bidez, Eroskik zero tolerantzia adierazten du bere erakunde osoan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena diren jokabideen aurrean, baita genero-orientazioan eta -identifikazioan, sexu-adierazpenean eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako jazarpen ororen aurrean ere. Protokoloa kolektibo osoari eman zaio ezagutzera eta ohiko barne-kanalen bidez eskuratu daiteke.

Intranetean eskuragarri.




05

Lan-osasunaren arloko ekintzak



Lan-osasunaren arloko ekintzak



Arrisku psikosozialen ebaluazioetako datuak generoaren arabera banakatuta jaso dira.


Arrisku psikosozialen ebaluazioen emaitzak berrikusi egin dira, berdintasunarekin lotutako itemei dagokienez.

Arrisku-ebaluazioetan sexu-jazarpena sartu da.


Kolektibo osorako prestakuntzak pelbizorua indartzeari eta bularreko minbizia detektatzeari buruz.



Emakumearen osasun mentala lan-arloan gaiari buruzko hitzaldia





Emakumearen
osasun mentala
lan-arloan gaiari
buruzko hitzaldia,
Women Lab-ekin
lankidetzan.




Asteburu zozketa

Asteburu holistiko baten zozketa Forum Sport-en eta Nike-ren eskutik.

Forum Sport-eko Gespa Forum-eko eta Dooers Sneakers-eko emakume lan-bazkideentzat.



Genero-indarkeriaren aurkako eta biktimei laguntzeko ekintzak



Indarkeria matxistari buruzko kanpaina espezifikoa.


Indarkeria hori jasaten duen Eroskiko edozein emakume langile babesteko, Eroski Taldean **jarduketa-protokoloa** daukagula gogoraraztea.

Dokumentu hori intranetean dago eskuragarri.


Protokolo horrez gain, barne-kolektiboa sentsibilizatzeko gaiak ere badaude, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak identifikatzen laguntzeko, baita indarkeria hori jasaten ari diren lankideen zantzuak detektatzeko zenbait jarraibide ere.




Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratzea



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak lan-munduan txertatzeko konpromisoa, Gurutze Gorriarekin nazio-mailako lankidetzahitzarmen baten bidez, bai eta Gipuzkoan jarduten duen Daiteke gizarte-aholkularitzarekin ere.




Elkartasun-kanpaina




Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben aldeko Zentimo Solidarioak dohaintza-programaren bidez.

Era berean, elkartasun-programak nerabezeroan jarri du fokua, aurrenekoz, indarkeria matxista eragin dezaketen jokabideen gorakada ikusten baita adin horretako gazteen artean. Hainbat erakunderi 133.000 € baino gehiago eman dizkiegu dohaintzan (Ana Bella Fundazioa, Gizakia Fundazioa, Ecos do Sur eta Fundació Surt).




06

Hizkuntza eta komunikazio inklusiborako ekintzak



Komunikazio berdintasuna sustatzea




Gure **Hizkuntza berdinzalearen eskuliburuan inspiratutako gida txiki bat** berrargitaratu dugu, hizkuntzari esker balioa eransteko daukagun aukeraz jabetzeko eta komunikatzeko modu berdinzaleago bat aurkitzen lagunduko diguten jarraibide batzuk emateko.



Lidergo inklusiboan aurrera egiteko helburuarekin, **hizkera inklusiboari buruzko prestakuntza eman zaio Eroskiko zuzendaritza-taldeari**, begirada zabalarekin.



Genero- estereotiporik gabeko marketinean parte-hartzea



[M-8 BEREZIA] - Think
On Woman. Ainhoa
Oyarbiderekin (Eroskiko
marka-zuzendaria)



2024

